

ORAINDIK

Iraitz Agirre

Arrasate, 17 urte

Amonak eskolara eraman zaitu uniforme garbia-
rekin, atzo Pablarekin jolasten zinela zerri eginda
jarri baitzenuen soinekoa. Zapi zuri-gorria lepoan
ondo jantzita eta zure ile beltzarana bi txirikorda-
tan orraztuta. Eskolan denik eta neskatxarik poli-
tena zarela errepikatu dizu gaur ere amonak bere
eskua zuretik askatu bezain pronto, bekokian
muxu epel bat eman eta atean utzi zaituenean.
Askotan egoten zara ispiluaren aurrean amaren
antzik duzun pentsatzen, aitonak maiz esaten baiti-
zu zuri so den bakoitzean ama ikusten duela.
Horrelakoetan beti negarrez hasten da aitona eta
zuk ere negar egin nahi izaten duzu, baina jakin
badakizu hobe dela haren magalean eseri eta
besarkatu, osterantzean egun guztia igarotzen
baitu leihoan bere Dolores agertuko den itsarope-
narekin: zain. Gauero amaren ahots goxoaren
melodia imajinarioarekin lokartzen zara, zure
ondoan dagoela amestuz. Haren azalaren perfume
hezea usaindu nahi zenuke eta haren bular han-
dien goxotasuna sentitu.

Gaur ere Pabloren aldamenean eseri zara esko-
lan, baina eskolak hasi orduko irakasleak alde
banatara eraman zaituzte, ez hitz egiteko abisuak
ez baitituzue bete; gaur ere ez. Marrazki bat egite-
ko beharra eman dizue irakasleak, familia guztia-

ren akoarelazko argazki bat. Zuk kontinente berria marraztu duzu aurrenik eta atlantiar ozeanoren erdian irla erraldoi bat, zure unibertso zeharkagaitza den irla. Hor ile labur zuriko emakume beltz bat marraztu duzu; ziur zaude amonak bere marrazkio ikusten duenean barre eginen duela. Besoa amonaren sorbalda jarrita aitona imajinatu duzu, beste eskuan hainbeste urtean bere maitale izan zuen tronpetarekin, dagoeneko behinola amodio abestiak konposatzeko balio izan zuen tresnak ahots kraskatu mingarri bat besterik ateratzen ez duen arren. Bien erdian zure marrazkia egin duzu, amonak egunero orrazten dizkizun txirikordekin eta eskolako uniforme garbituarekin. Irla erraldoitik ez hain urrun beste lur bat egin duzu, Europa bezala ezagutzen dena eta hor, alde guztietara sakabanatzen diren penintsula arrotzen erdian, amatxo marraztu duzu. Soineko gorri bat darama jantzita, zapata altuak eta zure bihotzean ahaztuko ez zaizun irriparra aurpegian. Amaren falta somatzen duzu:

Diskotekako musika entzuten da eme biluzik dagoen gelatik. Isiltasuna da nagusi zapi gorri haustuez apaindutako gela ilun horretan. Txanpon batzuen truk bere emazteak ustez sekula egingo ez lizkiokeen lizunkeriak egin ondoren, prakak lotu eta maindira gainean etzanda dagoen emakumeari zerbitzua ordaindu ondoren, agur esan gabe irten da gelatik, bere Mercedesen etxean zain izango duen familiagana itzuliz. Azal iluneko emakumeak dirua kontatu eta bularretakoa

jantzi ondoren, hor sartu du bilete-sorta. Kuleroak eta dena agerian lagatzen dizkion soinekoa jantzi-rik komunera sartu, makilatu, bularrak eskotera bideratu eta barrara itzuli da; ez da oraindik gaua amaitu.

Martini bat eskatu eta zigarro bat piztuta, barra-
ren ezkinan eseri da hurrengo bezeroa etorri zain. Berehala gerturatu zaio lerdea dariola gizon buru-
soil txiki bat, hartu duen lehen lana eskua eserle-
kutik at den ipurmasailean jartzea izan delarik.

– Nola dun izena polit horrek? –galdetu dio erantzuna apenas axola dion gizon lerdetsuak.

– Dolores, –erantzun dio emakumeak kea irentsi ondoren.

– Zer Dolores, hor atzeko logelaren batera joan-
go al gara?

Zigarroa amatatu eta ezer esan gabe hartu du legelarako bidea emagalduek, atzetik eta begirada alde batetik bestera mugitzen den ipurdira zuzen-
duz, dagoeneko gerrikoa askatuta duen gizona. Atea itxi bezain pronto gizon guztiei esaten diena errepikatu du; nahi duen guztia eginen diola eta egiten utziko diola, sarketa anala izan ezik, eta pre-
serbatiboarekin noski. Gizonak ez du eragozpenik jarri, itsuraz egiteko presaz omen baitabil. Doloresek soinekoa erantzi du eta lurrera bota. Ondoko dantzalekuko musikaren erritmoan gertu-
ratu zaio dagoeneko gogortuta duen gizonari eta ahoa gerturatu du. Gaurkoa beste gau bat izanen da, beste gizon ezezagun batekin, bere etxetik hain urrun dagoen lurralde horretan.

Irakasleak marrazki guztiak hartu ditu banan-banan eta egile bakoitzari marraztutakoa azaltzeko eskatu. Pablo izan da ikasgelako lehena. Bere ama Isabelita munduan denik eta ama zoragarriena dela esan du, eta benetan emakume zoragarria da zuretzat ere, maiz gonbidatzen baitzaitu bere etxera Pablarekin jolas egin dezazun. Bere aita Luisek taxiak gidatzen dituela aipatu du hurrena eta azkenik, bere arreba Dabnek taberna batetan lan egiten duela esan du. Ikaskideek beren azalpenak eman dituzten bitartean, zuk zer esango duzun pentsatzen jardun duzu. Azkenean zure ordua iritsi da.

– Azal iezaiguzu marrazkia, Carmelita –zuzendu zaizu irakaslea.

– Hemengo hirurok amona, aitona eta ni gara. Amona emakume lodi maitagarria da, sekula kantuan isiltzen ez dena eta haserretzen denean iseka egin bezain pronto damutu eta muxu ematen dutenetakoa. Aitona ere oso gizon alai da, amarekin pentsatzen ez duenean behintzat, nahiz eta ez duen apenas deus entzuten. Beti errepikatzeko eta errepikatzeko agintzen digu eta nik tripak lagatzen ditut haren hankasartzeekin. Itsaso erraldoiaren bestaldean nire amatxo dago, munduko emakumerik ederrena bera. Inguru haietan taberna batean egiten du beharra, baina laister aktorea ospetsu bat izango da, horren promesa egin baitzidan. Asko maite dugu elkar eta ahal bezain pronto hara eramanez nauela agindu zidan. Nire aitaxo ez dut marrazkian marraztu, ez dakit eta benetan non dagoen. Egia esan, ez nuen ezagutu, ni jaio nintze-

nean alde egin baitzuen nonbaitera, baina ez dakit nora. Amak esan zidan behin oso gizon ederra zela, baina nahiko inozoa. Nik barre egiten dut, ziur bainago nire aitatxo ez zela inozoa.

Amona etorri zaizu eskolara bila eta zuretzat sorpresa handi bat duela ohartarazi zaitu. Eskolako atean Pablo agurtu eta erritmo azkarrean egin duzu etxerako bidea. Amonak mila eta bi madarikazio bota ditu arnasestuka; Carmelita, gelditu zaituz, bestela hemen eroriko naiz ziplo, errepikatu dizu behin eta berriz. Etxera iritsi bezain pronto aitona leihoan dela ikusi duzu, negarrez, ziurrenik amaz oroitzen egon da, pentsatu duzu. Sukaldeko mahaian dagoen gutuna hartu eta ireki egin duzu amarena delako ziurtasunaz.

“Kaixo, polita: Zer moduz zabilta aitona eta amonarekin? Asko oroitzen naiz zutaz, txiki, eta hona noiz etorriko zaren desiratzen nago baina oraindik itsaron egin beharko duzu, etxe polit bat alokatu nahi baitut biontzat, ados?! Laister beteko dituzu zortzi urte; ene! zeinen azkar igarotzen diren urteak. Ez larritu, laister aipatutako etxetxo izango baitut eta nerekin etorriko baitzara. Agur, laztana, eta musu haundi-haundi bat. Eman besarkada haundi bat aitona eta amonari”.

– Amona! Aitona! Laister amarengana joango naiz! –egin duzu garrasi zeure burua aitonaren gainera bota eta besarkatzen duzun bitartean.

– Hala izango ote da, Carmelita. Nahiago nuke Dolores hemen balitz, hain urrun beharrean. Ai Dolores nereaa...

Burusoilak gerrikoa lotu eta ordaindu ondoren etxerako bidea hartu du barran zigarro kubatar bat piztu ostean. Egindakoarengatik esker ona adierazteko edo plazerraren azken adibide? Emakumea jantzi eta berriz ere tabernara gerturatu da.

– Dolores, etorri hona. –agindu dio klubeko zuzendariak dagoeneko leher eginda dagoen emagalduari. Beretzako lokalean dituen beste guztien arteko bat besterik ez da. Berdin dio kubatarra, errusiarra, frantziarra, brasildarra edo ukraniarra izan, lanerako lain bada nahikoa da. –Ez nago bate-re pozik zure lanarekin. Gehiago saiatuko bazina, guztiontzat hobe. Ikusten Noemi? Gaur jada bost bezero izan ditu. Horrela hasi ezean kalera bota beharko zaitut.

Zuzendaria aldendu ahala, gaizki zer egin ote duen pentsatzen jarri da Dolores. Bere aburuz lana ondo betetzen du, nahiz eta garbi dagoen besterik lortu ezagatik dagoela behar horretan. Saiatzen da, dirua behar baitu beste edozeren gainerik; dirua bizitzeko eta dirua bere Carmelita egunen batean Europako herri ahaztu horretako etxe txiki batera ekartzeko.

Carmelidak ez du oraindik umetan marraztutako atlantiar ozeanoa zeharkatu, bere unibertso zeharkagaitza den irla erraldoian jarraitzen du. Ez da zortzi urte lehenago bi txirikorda zeramatzan neskatilatxo hura, dagoeneko neska heldu eta hazia da. Oraindik amarengana itzuliko den esperantza gordetzen du bere bihotzaren erdian, baina jakin badaki ama ez dela inoiz aktorea ospetsu izatera iritsiko.

Doloresek bere bizitza egin du Europa zaharreko lurralde arrotz horretan. Orain bost urte bere zerbitzuak erbili beharrean hitz egiteko ordaintzen zion gizon batekin ezkondu zen, agian ez maite-minduta zegoelako, baizik herbestean zeraman denboran goxotasuna eskeini zion bakarra izan zelako. Ezin eraman lezake ordea bere txikia atlantiko bestaldera; hori esaten dio behintzat ezer ulertzen ez dion abokatu batek. Oraindik Carmelitarekin itzuliko den esperantza gordetzen du bere bihotzaren erdian, baina ahantzi egin zaio dagoeneko ez dela bere txikia, emakumea baita jada sorterrian laga zuen neskatxoa.